



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

Maria Larretxea Etxeberria
Ainhoa Bereau Alchu
Pello Ariztegi Etxepeteleku
Miren Ilarregui Belarra

2023ko maiatzaren 26an, 15:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak akta aurkeztu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- 2023ko apirilaren 3ko eta maiatzaren 2ko aktak onartzea.

2.- HJPE 3. POLIGONOKO 93. LURZATIA. HASIERAKO ONESPENA.

3. poligonoko 93. lurzatiaren PEAU aurkeztu du Koianea etxea berritzeko eta 3 etxebizitza eta apartamentu bat bihurtzeko helburuarekin. Parte hartzeko prozesua egin zen eta udal arkitekto aholkularien aldeko txostena jaso zuten. Arkitekto aholkularien txostena kontuan hartuta eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuarekin bat etorriz, **Udalbatzak hurrengoa aho batez erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- 3. poligonoko 93. lurzatiaren PEAU Proiektua hasiera batean onartzea.

2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen den egunkarian, jendaurrean egon dadin hilabete bateko epean.

3. Erabaki hau jakinaraztea interesatuei.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

3.- ORONOZEN “ZUNDA” EZGAITASUNA DUTENENTZAKO ESKUALDEKO EGUNEKO ZENTROA FINANTZATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONESTE.

Alkateak gaia azaltzen du: Baztango, Urdazubi, Zugarramurdi, Malerrekako eta Bortzirietako Udalek, hala bada, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, “Zunda Etxea” izeneko higiezin birgaituko dute, Oronozko 6. poligonoko 2. Lurzatian kokatua (Baztan), eguneko zentro gisa egokitzeko, Baztango, Urdazubi, Zugarramurdi, Bortzirietako eta Malerrekako desgaitasuna duten pertsonak artatzeko

Hitzarmen honen xedea da lankidetza-esparru bat ezartzea Baztango Udalaren eta Urdazubi, Zugarramurdi, Bortzirietako nahiz Malerrekako Udalen artean, desgaitasuna duten pertsonendako eguneko zentroaren obrak egiteko, eta etorkizuneko eraikina kudeatu eta mantentzea.

Gainerako Udal sinatzaileek finantzatuko dute Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzek eta laguntzek estaltzen ez dituzten inbertsioen zenbatekoa, eta zentroa mantentzeko etorkizuneko gastuak, salbu higiezin desjabetzeko espedienteak, betiere udalerrri bakoitzaren biztanleen arabera. Inbertsioen eta mantentze-gastuen finantzazioa honela banatuko da:

ITURENGO Udala; 515 biztanle, % 2,29

Udalburuak gaia azaldu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengo aho batez erabaki du:

1. Proiektu honetan parte hartzea.
2. Hitzarmena sinatzeko Alkateari boterea ematea.
3. Akordio interesadunari jakinaraztea.

*****MIREN ILLARREGUI BELARRA ATERATZEN DA*****

4. BAKE EPAILEAREN IZENDAPENA

Ikusita bake epailearen plaza utsa 2023ko apirilaren 24ko 83. NAO-n argitaratu zela eta udalean erakustaldi publikoan egon zela 15 egunez. Aztertuta bake epailea izteko legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituztela, **Udalbatzak erabaki du:**

Alde 4
Abstentzio 3



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

1. Isidro Bazterrica Mutuberria bake epaile hautatzea.

2. Izendapena, Nafarroako Auzitegi Gorenera bidaltzea behar diren ondorioetarako.

*****MIREN ILARREGUI BELARRA SARTZEN DA*****

5.- KOMUNALEAN ERLAUNTZAK JARTZEKO BAIMENA: HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik:

- Angel Goizueta Apezteguia eskatu zuela honako lurzati honetan herri-lurra okupatzea erlauntzekin: 30 erlauntz 2. Poligonoko 494 lurzatian, Bizkarreko borda parajea.
- Maiatzaren 9an Abeltzaintza zerbitzuan erleak altan emana.
- Pleguak irakurrita

Azaldutakoa oinarri hartuta eta Nafarroako Toki administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 172. Artikuluan azarritakoarekin bat etorriz, Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.-Espedienteari hasiera ematea, honako lurzati honetan herri-lurra okupatzeko erlauntzekin: 30 erlauntz 2. Poligonoko 494 lurzatian, Bizkarreko borda parajea.

2.-Okupazioa arautuko duen pliegoak onartzea.

3.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 egun baliodunen epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ostean.

4.- Adieraztea alegazioeik ez badago, edo aurkeztutakoak ebatzi ondoren, espedientea Nafarroako Gobernuari igorriko zaiola, onets dezan.

5.- Akordioa interesdunari jakinaraztea



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

6. ESKAERAK

Ez dago eskaerarik.

7. ALKATE EBAZPENAK

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (14/2023. ebazpenetik 27/2023. ebazpena) eta Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Jarraian Udalbatza herriko gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da: Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduko baimen eskaerak; Fco Javier Alchu Iparraguirre eta Blanca Urroz Garralda—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso aprobetxamenduko baimenak: Juana Maria Altxu Juanikorena ; Iturengo herri langilearen dirulaguntzaren ebazpena (2749E/2023, 2023ko maiatzaren 12koa); -- Abeltzaintza zerbitzutik Angel Goizueta Apezteguia erleak jartzeko altaren ebazpena RE17366.—0002-OT14-2021-000080 expteri buruzko informazio eskaera Lurralde Antolamendulo departamentua.---Doneztebeko osasun etxea pediatria lanpostua bete da. --- Aurkeztutako Iturengo osatatuaren ordutegia azaltzen da eta Aurtizko ostatua ekainaren 8tik 11arte itxita egongo dela.

9. GALDERA-ESKAERAK

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 16:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.